

## MENDEKOZTE HITZEAN DAUKAGUN «Z» HORI DELA ETA...

---

**B**atek baino gehiagok dio «S» jarri beharra dagoela erderatik hartutako mailegua dela argudiatuz. Baina ene ustez ez da horrela beti izan behar. Eta adibiderik onena, gure hizkuntzak ematen digu beste holako hitzetan, halanola: Zakua, Pazko Eguna,... azken hitz honek, erlijiosoa izanik ere, oso parekotasun handia hartzen du, gu hemen aipatzen ari garenekin.

Beste batzuek diotenez, oso kontuan eduki behar dugu «zetaren» ahozkerara arras galdua dagoela gure herrian, bere tokian lezoarrek «S» edo «X» ahozkatzen bait dugu. Adibidez: giXona, Suek SeaSte,... eta honelakoak. Horregatik proposatzen dute, betidanik, eta egitarau zaharrenetatik agertzen zaigun «Z» xeble hori kentzea. Beraien ustez, garaiko apaizen aranimoa bait litzateke. Baina argudio hau defendatzen dutenei oroitu behar zaie Lezon ez dagoela Lezo zetaz ahozkatzen duen lezoarrik, danok LeXo esaten bait dute. Bi bertsolari eduki ditugu herrian, eta biak LeXo izen goitiz izan dira ezagunak. Eta argudio honi jarraituz, mendekoZte jaiei Z hori kentzeaz gain, herriaren izenari kendu beharko genioke ere. Utz ditzagun bada bai MendekoZtetako eta bai Lezoren barruan ditugun «z» horiek pakean, eta ondo igaro ditzagun gure festak. Osasuna denori!

**JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN**